

Podiumaren...



... gazi-gozotasuna

drogeteniturri

TOKIKOM

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 178. alea 2010eko apirila

BIRZIKLATZEKO BEREIZTU



Plastikozko ontziak, latak eta brick motako ontziak



DEBABARRENA
MANKOMUNITATEA



Kartoizko eta paperezko ontziak, egunkariak eta aldizkariak bakarrik



ZURE ESKUETAN DAGO BEREIZTEA,
BIRZIKLATZEA GUZTION ESKUETAN DAGO



ATE IREKIAK

etorri aurretik izena eman!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



PREST

M
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE

MAIATZAK 6 osteguna 17:30

MAIATZAK 20 osteguna 17:30 2. zikloa

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI

MAIATZAK 13 osteguna 18:00

IRUN

MAIATZAK 6 osteguna 18:00 2. zikloa

MAIATZAK 20 osteguna 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORITAZA

MAIATZAK 8 larunbata 11:00

areto nagusian

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)

247 posta-kutxa
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Alazne Aiestaran,
Eneritz Aranburu eta
Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Asier Ibaibarriaga.

LAGUNTZAILEAK:

Igone Amesti, Patxi López,
Ana Gómez,
Valentin Mugarza,
Asier Ibaibarriaga eta
Fede Iturriagagoitia.

ARGAZKIAK:

Alazne Aiestaran,
Lara Alonso,
Asier Ibaibarriaga, Valentin
Mugarza eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Jon Arano, Irune Martínez
eta Ane Loiola.

TIRADA:

2.200 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

Buru eta buztan beltzean, sabeleko eta hegoetako bere luma zuriak deigarri egiten dira. Luzea eta zabala du buztana eta hegoak, txikiak aukeran; hegan egiteko modua berezia du. Habia lokatze-kin atontzen du eta haren gaineko alde adarrekin estali, goitik dabilzan harrapakariak ikus ez dezaten. Jatekoa orbel eta lur azpian ezkutatu eta egunak beranduago topatzeko gauza da. Zarata biziko soinua da berea, 'klak-klak, klik-klik', ez senidea duen belearen karraskadaren parekoa. Bizi guztian Hanbretik gora ibili da eta erreparatuta nago paraje batzuk gehiago gustatzen zaizkiola besteak baino: holan ba Untzaman ikus daiteke eta ez ondo-ondotxoan dagoen Elorreta inguruan.



Mikia Urraca
Pica pica

Hilabete honetan...

| | |
|--------------------------------------|---|
| TALDE-TXOKO4 | KIROLZALE17 |
| Minbiziaren aurkako elkarte | Errotabari eskubalo taldea |
| ELKARRIZKETA5-7 | IRITZIA18 |
| Arantza Cañameres eta Miguel Fuentes | Transgenikoak. Elikagaiak??? |
| MALLABIAN ZER?8-9 | SALEROSKETAK19 |
| Oh Happy Day! | Saldu, erosi edo agurtu |
| ERREPORTAJEA10-11 | ANTZINAKOAK.....20 |
| Elisa Albizu | Ermuko eta Mallabiko argazkiak |
| MOTZEAN.....12-13 | KALEKO INKESTA21 |
| Txabi Arnalen liburu berria | Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak |
| ERMUAN ZER?14-15 | AGENDA22 |
| Amalia Martínez | Maiatzeko agenda |
| BOTEPRONTOA16 | |

Eva García

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Minbiziaren aurkako elkarteak

Emakumez osatutako talde honek urteak daramatza minbiziaren kontrako sentsibilizazio eta prebentzio lanetan. Hala ere, diru-laguntzetan egon diren jaitsieraren ondorioz, hainbat ekimen alde batera laga behar izan dituzte.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

Duela 15 bat urte sortu zen, Emakumearen Sustapenerako zentroan.

- Zenbat kide zarete?

Gorabeherak izan ditugun arren, 16-20 kide inguruk osatzen dugu elkarteak. Gainera, minbiziaren aurkako borrokarako diru-biltzea egiten dugunean, 4 edo 5 lagun gehiagok kolaboratzen dute gurekin. Esan beharra dago, gure elkarte Bizkaiko Batzaren zati dela.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Minbiziaren kontrako borrokan ermua-rraren parte-hartzea sustatzea; AECC-ren (Minbiziaren Kontrako Espainiako Elkarteak) egitaraua, ekimen eta baliabideak ezagutaraztea eta boluntarioentzat topagune izatea, besteak beste.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete?

Orain dela bi urtera arte hilero biltzen ginen. Orduetik hona, ekimenen bat edo kanpainaren bat martxan jarri



behar dugunean biltzen gara, bi hilero gutxi gora behera. Hasieran 'Gure Etxea' eraikinean lokala genuen; orain, berriz, Emakumearen Topalekuan edo Lobianon egiten ditugu bilerak.

- Zeintzuk jarduera egiten dituzue?

Alde batetik prebentzio kanpainak egiten ditugu: Minbiziaren kontrako egunean (otsailaren 4an) eta Tabako gabeko mundu egunean (maiatzaren 31an) esaterako, eta diru-bilketak. Horretaz gain, nutrizio-arekin zerikusia duten prebentzio tailer-rrak egiten ditugu eskoletan (elikadura eta frutari buruzkoa egin dugu aurten San Pelaion), baina gero eta diru gutxiago dugu hitzaldiak eta tankera horretako gau-

zak egiteko. Bestalde, azpimarratzekoa da Merkatu Plazako merkatariek urtero antolatzen duten jaietan, pintxoak egiteko lehengaiak dohainik ematen dizkigutela. Elkarteak pintxo horiek saltzen ditu eta jasotako dirua AECCrentzat izaten da.

- Txangoak egiten dituzue?

Urtean behin Bizkaiko Elkarte guztietako kideekin bazkaria egiten dugu Bilbon, 400 lagunetik gora biltzen garelarik.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Elkarteko lehendakaria Consuelo Vega da (943031174, 665828734 edo consuelovega@hotmail.es). Bestela Emakumearen Topalekura joan daiteke edo Bizkaiko Batzara deitu (944241300).

SAN ANTONIO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOGEGIA
NHEH CERYECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78



Arantza Cañamares eta Miguel Fuentes:

“Landetxea baino, gure bizitza proiektua da Satzu”

Zazpi urte eman dituzte Miguel Fuentesek eta Arantza Cañamaresek Markinako Ubila-Urberuaga auzoan duten landetxea eraikitzen. Korta bat izatetik, sei logelako landetxe liluragarria izatera pasatu da. Eskuz egindako detailez beteta daude txoko guztiak, Miguelen artista kutsua bazter guztietan arnasten da. Urte gogorak izan dira, baina Satzu martxoan zabaldu zuten eta dagoeneko erreserbak jasotzen hasi dira. Orain, etxeak ez du preziorik.

bat egiteko... Azkenean landetxearena gustatu zitzaigun eta horretan lanean hasi ginen, inbertitutako dirua, epe luzera, errekupearatu ahal izateko. Egia esan, gure etxea orain landetxea dagoen lekuan kokatu behar genuen, baina arkitektoaren hanka-sartze bat zela-eta, eta aurreikusi gabe Izaro (lehen alaba) etorri zenez, presaka hartu behar izan genuen erabaki bat. Dena berriro birplanteatu.

- Zelan antolatzen zarete?

Enpresa sortu dugu, Miguelena da eta berak egiten du lan bertan. Harreraz, mantentze-lanez eta garbiketaz arduratzen da. Nik kalitate-sistemaren ezarpena eta administrazio kontuak daramatzat. Orain dela gu-

txi Eusko Jaurlaritzako Turismoaren kalitate ziurtagiria lortu dugu.

- Orain zabalik dago. Zer nolako harrera izan duzue?

Martxoan zabaldu genuen eta baditugu erreserbak.ASTE Santuan ere etxe osoa alokatu genuen. Pozik gaudete. Orain hasi gara dirua ikusten, orain arte zero euroekin egon gara-eta.

- Etxea jendez beteta batean ikustea, berezia izan da?

Bai, beno gu egun horietan ez ginen hemen egon. Hala ere, inauguratu aurretik, etxea lagunekin bete genuen asteburu batean, denak ondo funtzionatzen zuela ziurtatzeko: denak dutxatu, kalefakzioak piztu, sukaldea erabili... Esperien-



“Gaua igarotzeaz gain, aukera asko eskaintzen ditu Satzuk”

tzia izugarria izan zen. Lagunak harrিতuta geratu dira, hasieran zoratuta geundela esaten zigutelako.

- Zuen logoa ‘Satzu. Etxe bat baino gehiago’ da. Zergatik?

Landetxe honek ez du ematen gaua igarotzeko aukera bakarrik. Aukera gehiago ematen ditugu. Arte galeria dugu, esaterako, eta bertan artistek euren lanak erakutsi eta saldu ditzakete. Horretaz gain, oso txoko handia dugunez, ikastaroak edo enpresen bilerak egiteko aukera dago. Bestetik ‘Satzuabentura’ dugu. Abentura enpresa batekin hitzarmena dugu eta inguruko parajeak ezagutzeko aukera dago: Santa Eufemian eskalada, espeleologia... Itsaso oso gertu dago (Ondarru 10 minutura, 20 minutura Lekeitio), Auslestiko erreka...

- Zerk desberdintzen zaituzte beste landetxeetatik?

Aurretik aipatutako guztiak. Gainera hasieratik mo-

du sistematiko batean lanean ari garela eta edozein negoziotian, kudeaketa oso garrantzitsua da. Bestetik, azpiegitura ona da: Wi-fi-a dago etxe barruan eta kanpoan, telebista, kalefakzioa, eskuoihalak, ile-lehorgailuak... hotel batek eskaintzen dituen zerbitzu asko eskaintzen ditugu. Oso eroso da, ez duzu gehiago behar.

- Zuekin kontaktatzeko?

Gure telefonoa 946169702 da. Webgunea Fran Carrascosak eta Markos Gimenezek diseinatu digute (www.satzu.net) eta argazkiak Raul Bogajok atera ditu, hirurak dira ermuarrak. Bertan landetxeari buruzko informazio guztia aurkitu daiteke.

Alazne Aiestaran.

Estibalitz González

eta Dorleta Vidal



solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA



Mallabiko taldea hirugarren 'Oh Happy Day'ko finalean

Aitor Loiola:



Esperientzia aberasgarria izan da bai abesbatza zein herriarentzat. Herriko hainbat talde inplikatu dira ongietorri ekitaldirako. Jasokunde abesbatzak egin duen lana izugarria da. Eszenatoki berrietara egokitzen jakin izan du. Amaitzeko gogoarekin egia esan. Tensioa oso handia izan da.

Eneritz Aranburu:



Koruko beterrana izan naiz. Hasiñan ilusioz hartu nuen, gustora. Umearen ardura ere banuen baina konpondu naiz.

Esperientzia polita izan da. Mallabia herri mailan ezagutzeko aukera eskeini du. Gure betiko jarraitzaileentzat pozgarria izan da.

Miren Josune Txakartegi:



Oso hurbil jarraitu dugu. Astero joan gara telebistara. Urduritasunez bizi izan dugu. Merezi izan du, taldea indartu du eta esperientzia aberasgarria izan da. Herri txiki baten zatitza telebistan ateratzea, handia da.

Justo Azagirre:



Gurasook oso hurbiletik bizi izan dugu. Ni programa batzuetara ikusle gisa joan naiz. Talde bezala aurrera pasua eman dute eta herriaren izena lau haizetara zabaldu da. Lan handia dago guzti honen atzean.

Apirilaren 24ean, ETBko 'Oh Happy Day' programaren II. edizioaren finala jokatu zen. Hiru talde ziren aurrez aurre: Astigarraga, Eibar eta Mallabia. Hamahiru programatan parte hartu ostean eta pausoz pauso bidean izandako erronka eta oztopo guztiak gainditu ostean, Mallabiko taldea finalean aritu zen eta bere lana oso txukun burutu arren, azkenean garaipena Astigarragak eskuratu zuen. Entzuleen sarian, Mallabiko taldeak makina bat botu pilatu zituen eta bigarren sailkatu zen. Mallabian bertan ere, ez zen jaigirorik falta izan. 400 lagun inguru bildu ziren pilotatokian ETBtik zuzenean emanaldia jarraitzeko. Mallabiko neskei, harrera beroa egin zieten eta jaiak goizalderarte luzate zen. Lan handi baten ostean, merezitako saria eta harrera jaso zituzten.



Klaudio Landa:

Mallabiko taldea tinko mantendu dute beraien izaera. Errepertorioa ere argi izan dute eta gauza berrietara ere irekitzeko ez dira kikildu. Ondo pasa dutela uste dut, nahiz eta epaimahaiarekin ere tirabira batzuk izan dituzten. Eskola handia izan dela uste dut eszenatokian mugitzeko eta espresibitateari dagokionez. Gaur egun nola dagoen eta nola etorri zen aztertu ezker, alde galanta dago.

Jesus Mari Uribealdea:



Urduritasunez bizi izan dugu. Bi alaba ditugu koroan eta gustora ikusi ditut. Guk ere haiek bezala, disfrutatu eta sufritu dugu. Herriaren izena asko zabaltzeko balio izan du. Lan handia egin eta burubelarri aritu dira honetan.

Bixente Amesti:



Nahiko natural eta eroso sentitu dira 3 alabak. Etxean ere giro lasaia somatu dut. Nahikoa egiten dute ikasketak eta hainbeste entrenamendu saio aurrera ateratzen. Horraino iristea meritu handia izan da. Iratxek eta taldeko kide guztiak ere lan handia egin dute.

Iratxe Lopez:



14 urterekin taldeko gazteena izan naiz. Esperientzia berria izan da eta ondo pasatu dut. Astuna ere egin zaigu, luzea ere bai baina gogotsu iritsi naiz finalerako. Konfiantza handia hartu dugu taldean eta herritarren babesa ere eskertzekoa izan da.

Itziar Markina:



Alaba lasai ibili da eta nik ere telebistara joateko aukera izan du. Saio batzuk lasai besteak larri, denetarik izan dugu. Koroa gustora ari da urteetan lanean eta honen ostean beti bezala aurrera segiko duela uste dut.



Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

FOTOKOPIAK

KOLOREZKO FOTOKOPIAK

HANDIPENAK - TXIKIPENAK

PLANOAK - AZALEZTAPENAK

FAX PUBLIKOAK

INPRIMAKETAK KAMISETATAN



Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*

Iratxe Uribelarrea, Koroko zuzendaria:

“Finalera iristea bera izan da guretzat sari”

Urteak daramatza Mallabiko koroa zuzentzen. Azken urtebete honetan buru-belarri aritu da koroa animatzen, zuzentzen eta egin beharreko aldaketak ikuskatzen. Makina bat ordu joan dira tartean, ilusioa eta elkarlanerako ezinbesteko bihurtu direnak.

- Hirugarren amaitu duzue azkenean...

Halere oso pozik gaude egindako lanarekin. Oso saio polita egin dugu eta hori da garrantzitsua. Afinezioan uste dut gu izan garela ondoen aritu garenak, besteek hutsegite batzuk egin dituzte baina epaimahaiak emandakoak agintzen du azkenean. Beste bi taldeek emandako ikuskizuna edo show-a gatik geratu dira aurretik uste dut.

- Pena, amorrua... nola zaudete?

Egindako lana ondo egindakoaren sententziarekin. Gure asmoa hasieratik ez da irabaztea izan. Ondo pasatzea, parte hartzea eta gozatzeta, hoiiek izan dira helburuak. Finalera iristea bera izan da nahiko sari guretzat.

- Nola sortu zen ‘Oh Happy Day’ n parte hartzeko aukera?

Lehen edizioan, telebista-

tik deika hasi ziren koro ezberdinetara baina guk ezetza eman genuen. Lehengo edizioa horren arrakastatsua izan ostean, bigarren edizioan berriz deitu ziguten eta animatu egin ginen.

- 18 neskek osatzen duzue taldea. Nolako esperientzia izan da?

Oso aberasgarria. Taldeko harremana estutu da. Elkarrekin makina bat ordu pasa ditugu eta denetarik izan dugu, irria, poza...

- Taldeak 13 programatan hartu du parte. Nolako bilakaera izan du?

Ahotsari dagokionez hasieratik maila eta ahalmena bagenuela uste genuen baina telebistan show-a, mugimendua, horrek balio du gehien eta atal hori landu behar izan dugu. Horixe izan da gure aldaketa nabarmena.

- Zer nolako maila aurkitu duzue?

Maila bikaina azaldu duten talde asko izan da. Horietako batzuk kanpoan ere geratu dira.

- Telebistan zer moduz?

Oso esperientzia ona izan da. Ondo hartu gaituzte beti. Epaimahaiarekin ez dugu harremanik izan.



- Zuzendari lanetan zer moduz moldatu zara?

Oso gustora. Uste dut apurka apurka lortu dudala abesti bakoitzarekin islatu nahi nuena transmititzen. Sarritan taldearen izenean iritziak eman behar izan ditut nahiz eta sarritan nire iritzi propioak izan.

- Mallabian oso giro berezia sortu da..

Etxekoak, lagunak... benetan eskertzen dugu jendearen babesa eta laguntza. Gurasoak ere jantziekin eta autobu-

sen antolakuntzan asko lagundu digute. Harrera festa bera ere, talde eta elkarte askoren elkarkidetzari esker egin da. Milesker denei bihotzez.

- Aurrera begira ze asmo duzue?

Atsedean pixkat aurrena. Lan handia egin dugu eta parte bat behar dugu. Aurrera jarraituko dugu dudarik gabe. Orain arteko abesti eta ikuskizunez gain, telebistan egindako molde berriak ere plazaratuko ditugu.

Asier Ibaibarriaga

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebistak, bideoak, musika aparatuak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MUGA

KALONIA

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platera (3€), menua, plater konbinatuak, bokatak, pintxoak, kazolak...

*Bazkari eta afariak parrillan (enkarguz): txuletak, arraina...

Enkarguak: **943 174 952**
(asteartetan itxita)

IAKADEMIA

ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefonoa (943) 17 90 38

ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1 **943 17 60 52**

IZOTZ KONJELATUAUAK

Ermuko Merkatua, 54 eta 55 postuak
943 17 41 01
Arrasateko Merkatua
943 77 05 98

Elisa Albizu, bordatzaille fiña

Eskuz bordatzeko erakustaille bi izan dira Ermuan: Elisa eta Filo. Harek erakutsitxakuekin jositxako erropak, etxe askotan barri-barri gordetzen dira ondiñok be. Oingo alian Elisan eskutik sartuko gara bodoque, ojete eta filtriréen mundu honetan.

Neskatillen artian bordatzia izaten zan goiz edo beranduoa ikasi biharreko gauzetako bat; ondiñok eskolaume zirala, arratsaldez eskola ostian edo udako bakaziñu sasoiari jua ten ziran ikastera. Neska gaztetuta, nobixorik euki ez arren be, haxe zetorrenerako eta harenbateko ezkontziari begira, arriua prestatzen hasten ziran. Etxeko erropa zuri guztixa josi ostian, bordauekin apaintzen zan: hari zurixakin -gitxiauetan kolorezkuekin-, lora edo zenefen marrazkixekin edertzen ziran izara, almuda-azal, moko-paiñelu, azpikogona, ka-

miso eta zamau zein serbi lletak. Pazientzia eta astixa hartu bihar izaten zan harek bainika, bodoque, filtriré eta ojetiak teliari etaratzen jua teko, puntada txikika, kurioso-kurioso. Inizialekin egoten zan konpromisorik haundiña, behin jositxakuan barriro askatzia itzelian kostatzen zan-eta: solteratan bordautakuak andriaren izen-abizen edo bi abizenen inizialekin eitxen ziran eta behin nobixotan hasi ezkerogizonaren abizenaren inizialakin kiribiltzen zan andriarena. Ha zelako penak bikotia eten edo zezegaitxik zapuzten bazan: gizonaren iniziala haritxoz hari desegin



bihar, hurrengo bikotiaren abizena inisial berarekin koinziditzen ez baezan behintzat!

Ikasten dabillanak, nork erakutsi euki bihar. Ermuan eskuz bordatzeko erakustaille izandako bietako bat Elisa Albizu Loitxate izan zan, 1903ko azaruaren 15ian jaixua. Aitxa Anastasio, armerua ogibidez, ermuarra zan modura mallabitxarra eban Esperanza ama. Elisa beraren esanetan, ume-umetatik ekarri eban dibujurako zaletasuna eta, jatorduetan be, mahai gainian loretxuak eitxen egoten ei zala ekan goguan.

Erakustaille aparta

Eibarren egon zan bordatzen ikasten eta bere konturara gero, kanporako bordatziaz gain, etxera etozenei erakustera dedikau zan ur-

tietan. Bazkaldu ostian, harriko eta sukaldeko plater eta abarrok aidian jasotzia gustatzen jakon; Balerio gaineko ezkatza laster beteko jakon andraz eta ipoiñez eta berandutxuao eskolatik urtendakuan, 10-12 neskato zaratatsu izango zitxuan, joste eta bordatziaren jakin biharreko guztixak ikasi guran. Bera txokotxo baten jartzen zan; ikasliak, jarleku banarekin, bueltan-bueltan. Danetik erakusten eban: harixia jostorrazaren zuluari sartzetik bainika zailena eitxeraiñok. Lehelengo josten erakusten eban gero bordatzera pasau ahal izateko, bastidorrakin generalian.

Umientzako erropa asko bordau zitxuan bere sasoiari: bataio-faldoiak, ume-kumarako izarak, kamisetatxuak, jaunartze edo jaixegun soiñekuak... Arriiak gero enkar-



Elisa Albizu 1924an bere ikasliekin jarritxa Estaziño bideko euren etxeosteko ortuan, traputxu bana eskuetan.

DO
Mouth

Drogeteniituri, 178 zkia.

san pelayo
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

Infreñu
Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

guz eitxen zitxuan: izarak, kamisoiak, zamauak, barruko erropak... Telak Juanatxo edo Pacanian erosteko ohi-txuria ekan, herrixan. Baiña Bilbora eskapariatiak ikustera be juaten zan; behin kristal aurrian bere kuadernuan soiñeko baten dibujua kopi-xatzen euala, ra!, barrutik pertsiania zelan bajau otsien kontatzen eban.

Berbetaleku estimaua

Radixo eta telebisiñorik ez euan sasoietan, herriko neska eta andra gaztientzat iñunbez hobeto Elisaren su-

kaldian baiño, herriko ipoin eta gorabeheren barri jakin eta andrak andrekin andren gauzetaz berba ein. Hara juandakuak arratsaldepara edarra izaten zala gogortzen dabe, umorian beti eta ezkatz familiarra Elisarena, honen ama Esperanza ertz baten makiña aurrian, isilisilik prakak josten eta seme-alaben etenbako harutzhonutzakin. Ze Cresencio Zubizarretakin ezkondu eta 4 seme-alaba munduratu zitxuan. 1931an, laugarrenak aste bete ekala alargundu eta iñude modura Gasteizera jua bihar izan zan, kan-

poko ume bati titixa emotera. Bizipen gogor horrek zera esan eragiten otsan: *“Oingo alargunak negar eitxeko astixa hartzen jone! Baiña guk, gizona hil eta bixamonian, umiak hazteko, pezetia irabaztera urten bihar izaten gendunan! Oin alargundu leike!”*

Pozik eta irribarretsu beti, bera lakoxe sinpatikia zan, baikorra eta beti aurrera begiratzen daben pertsonetakua. Ezagutu ebenen esanetan, pentsamendu eta eitxex total modernua bere sasoirako. Artistia zan: ikusgarri dibujatziatz gain kantu-

eta dantzazale amorratua zan, danbolin hutsa, haren baten etxian bizi izandako giuaren ondorixoz: zeozergatik zan Sta. Zezilia Bando-ko zuzendari eta txistulari izan zan Luis Albizu, Luis Txikixaren arrebria. Solteratiko-despedida eta ezkontzetara juateko konbitiak takian-potian hartzen zitxuan eta konpromisu haundixa eukitzen eban, danetara ezin ba jua... Beragaitzik balitza, astero prestauko litzake; aurretixaz disfrutatziaz gain, hain gustura ibiltzen zanez, bizi izandakuak gogora ekartzen eta kontatzen egoten zan egunetan.

Ermuan hil zan 1987ko apirilaren 22xan, bere bizi-tza osua harixa eta jostorrazari lotuta emondako andra irribarretsu hau. Pare bat urte lehenao ondo merezitako omenaldixa ein zotsien, berakin ikasten ibillitxako andrekin ospatu ebana. Etxe askotan berak zuzendutako esku-biharrek dagoz, erabiltzeko baiño pena haundi-xauakin armarixuetan gordeta. Makiña bidar, bordautako izara zurixen aurrian, entzungo jakon bateron bati esaten: *“Honek Elisarian bordau nitxuzan. Ordukuak bai biharrek!”*.

Estibalitz González



Elisa bere ikasle izandakuen erdixan Pizpilluen arbolapian, 1985ko apirilaren 28xan, bere omenaldi egunian.

CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta 3 L8 pab.
Tel. eta Faxa. 943 17 04 14

O eta 8 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

mimitos

Zapatak, pijamak,
lentzeria, aulkiak,
sehaskak, tronak...
behar duten guztia!

*Eta gainera 'Hello Kitty'-ren
artikulu mordoak!*

Probaleku 4, Ermua · ☎ 943 033 830

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**
- Tarta bereziak

• *Astelehenetik ostiralera 9etan
zabaltzen dugu*

**mari
asun**

Diputación, 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

LORADENDA

**ESKOLABARRIK
9. MINGEGIA
ANTOLATU DU**


Apirilaren 30a eta maiatzaren 8a bitartean, Eskolabarrik heziketarako 9. mingegia burutuko du, 'Esfortzua, maldan behera' izenburupean. Lehen hitzaldia Pedro Horrillok eskainiko du Lobianon (apirilaren 30ean, ostirala, 18.00etatik 19.30era) eta nahi duten ermuar guztiek parte ahal izango dute. Horretaz gain, maiatzaren 3tik 7ra haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako ikasleentzat hainbat ekintza egingo dira Eskolabarrin. Azkenik, maiatzaren 8an, Juan Carlos Colinak 'Gizarte-inguruak esfortzuen kontzeptuan duen eragina' deituriko tailerra emango die 2. eta 3. zikloko ikasleei.

**ANTXITXIKETAN
TALDEAREN LOGO
LEHIAKETA**

Antxitxiketan Aisialdi taldeak bere logotipo berria aukeratzeko lehiaketa deitu du. Pertsona bakoitzak 3 proposamen aurkez ditzake, gehienez ere, paperean nahiz euskarri digitalean. Paperean aurkezten diren lanak DINA4 orrian egon beharko dira, bi tamainatan: 5x5 zm eta 10x10 zmtakoa. Logotipoaren ondoan, honakoa jarri beharko da: Antxitxiketan Aisialdia. Proposamenak maiatzaren 14ra arte aurkeztu ahal izango dira, Lobiano Kultur Gunean. Epaimahaiak logotipoak aurkezteko epea amaitu eta aste-betera emango du ezagutzera irabazlearen izena. Lehiaketako irabazleak sari moduan 50 euro jasoko ditu.

Txabi Arnalen beste ipuin bat argitaratua

"Cuando nació, mamá me metió en una caja de cartón, una de esas cajas donde guardan sus zapatos quienes tienen zapatos. Aquella era mi cuna, mi habitación, mi casa, las paredes que amortiguaban el llanto de mamá...". Horrela hasten du Txabi Arnal ermuarrak bere azken liburua, 'Caja de cartón' deiturikoa. Ilustratzaile lanetan Hassan Amekan iraniarra ibili da eta ipuina ume eta gazte-literaturan ohikoak ez diren gaietan murgiltzen da: giza-ezberdintasunak, inmigrazioa... Istorio dramatikoak kontatu arren, elkartasunaren ikuspegitik itxaropenari lekutxo bat egiten dio. Hassan Amekan-en marrazkiek kartoia dute ardatz, material horrek duen hauskortasuna etorkinek pairatzen duten babes gabetasunarekin bateratzeko asmoz.

**Finlandiara ikusi eta ikastera**

Ermua-Eibar Uniko 22 ikasle eta 2 irakaslek Finlandian 6 eguneko egonaldia egin dute, hango eta hemengo ikasleen arteko truke programa baten barruan. Horietatik 9 ermuarrak dira. Hango eskolak bisitatu, hezkuntza sistema gertutik ezagutu eta adin berekoekin harremanak sortzea ziren helburuetako batzuk. Familiekin egin dute egonaldia eta urrian finlandiarrak etorriko dira Eibar-Ermuko etxeetara. Bertan etxe indibidualetan bizi dira eta gertuen daukaten auzokidea 4 kilometrorra dutenez, harritu egingo dira hemengo 70m2 gure pisuetan! Indibidualistagoak sumatu dituzte, harreman sozial gutxiagorekin; zapatu iluntzeko txikiteo orduan, Zubiaurren gora eta beherako jendetza ikustean, are harriatuago geratuko dira!

**Irakurri, Gozatu eta oparitu martxan da**

Apirilaren 23tik uztailaren 24ra bitartean, 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' egitasmoaren abantailak erabili ahalgo ditugu ermuarrok, Euskal Birusa, Udal Liburutegia eta Xiripot eta Maribel liburu denden elkarlanari esker. Egitasmo honen funtzionamendua erreza da: Irakurleak euskarazko edozein liburu hartu ahalgo du liburutegitik eta bertako mailegu zerbitzua erabilita etxera eraman, han goxo-goxo irakurtzeko. Liburua itzulitakoan, hiru galdera erraz dituen fitxatxoa bete eta erosketa-txekea emango diote liburutegian bertan. Horrekin, Xiripot edo Maribelenean, euskarazko beste edozein libururen prezioaren %25 ordaindu ahalgo du, eta irakurlea Euskal Birusaren bazkidea bada %50. Azkenik, erositako liburua lagun bati oparitzea proposatzen digu egitasmoak, gustuko gauzak konpartitzeak dakarren plazeraz ere gozatzeko. Gozamina bider bi. Gozatu eta gozarazi. Erabili!



ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

E G A Ñ A
ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

T XALAPARTA
ABERNA

**Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13
(Ermua)

ENKARGYAK
943 030 299

Mallabiko berri laburrak

Miren Amuriza nagusi Mallabiko kanporaketan



Pasa den apirilaren 23an jokatu zen Mallabiko Izar Gorri Elkartearen, Durangaldeko bertsolari txapelketaren lehen aurreaioa. 70 lagun inguru bildu zen eta giroa ere beroa izan zen. Sei bertsolari aritu ziren, Miren Amuriza, Garikoitz Sarriugarte, Unai Ormaetxea, Gorka Lazkano eta gure bi ordezkariak: Julen Sololuze ermuarra eta Beñat Ugartetxea mallabiarra. Saio bizia eta umoretsua osatu zuten guztiek eta amaieran, Miren Amuriza geratu zen lehenengo.

Era horretan, Durangaldeko txapelketaren finalera zuzenean sailkapena lortu zuen. Beñat bigarren gelditu zen eta Julen, laugarren. Biek maila polita eskaini zuten. Bigarren kanporaketaren zai beharko dute maiatzaren 29ean, Berrizen jokatu den Durangaldeko finalean egongo diren ala ez jakiteko.

Ur hornikuntzan arazoak

Zengoitte inguruen egiten diharduen basolanek sortu eben apirilien hainbat herritarrek ur hornikuntzan arazuek eduki izena. Kaltie ezagutu orduko, basoko biherrok bertan behera itxi ziren. Zengoittetik datozen urek zarratu eta garbiketei ekin eutsien langiliek, bittartien Mañaritik datozenak zabaldu ziren herrixen ur hornikuntza bermatzeko. Uraren kalitate aztertu ondoren kontsumorako ez erabiltzea aholkatu arren, udalak herritarren segurtasune bermatu nahixen galazo egin eban ur hori erabilttie. Hilaren 21erako ur edangarrixe bermatu zan Mallabi osuen. Osmo, Ansoaga Intxaurti, Mallaldeko etxe batzuk, Goitta eta Goitondoko auzuek izan dira kaltetuek.

Trabaku-Zengoitteko bidie eztabaidagai Batzar Nagusixetan

Apirilaren 19xen, Bizkaiko Batzar Nagusixetan Trabakuko auzixe eztabaidatu zan. Bertan EAJ eta PSEko apoderatuek bide honetako segurtasunari dagokixuenzan eta Ezker Abertzaleko kidiek plazaratu ebieran erreibindikazinuek ukatu zittuezan. Jeltzalien esanetan, Mallabiko Udalak eta Auzo Elkartiek bide honetan segurtasune hobetzeko egindako eskerei erantzuten diherdu Foru Aldundixek. Miren Agurtzane Urresti apoderatuek, baina, onartu egin biher izan eban proiektu honetan segurtasun aldetik hutsuniek daguezala eta herritar talde batek neurrixek eskatzen dittule. Halan eta guztiz, aurrera jarraitzen daben lanek hein haundi baten gabezia honek arinduko dittule eta beste batzuk teknikuek aztertuko dabiezela esan eban. Bestalde, Begoñe Agirre batzordekide independentistak Aldundiaren aldetik Mallabiko Udala eta herritarrenganako erantzun eza salatu eban.

DUATLOIA, MAIATZAK 8 ERMUAN

Ermuko Triatloi taldeak Bizkaiko txapelketako duatloia antolatu du maiatzaren 8rako. Proba 16.00etan hasiko da San Pelaioke parkean. Izen-ematea www.triatloi.org webgunean egin beharko da maiatzaren 6a baino lehen. Guztira 2.400 euro banatuko dira hainbat saritan.

MALLABIKO III. FRONTENIS TXAPELKETAKO IRABAZLEA, LESAKAR BAT!

'Internazionalak gara', dio Carlos Perez antolatzaileak. Finala apirilaren 22an jokatu zen Eskolako frontoian. Gorka Varela plaentxiarrak eta Ibai Mitxelena lesakarrak neurtu zituzten indarrak eta partidu parekatu eta gogor baten ondoren Mitxelena izan zen irabazlea, 25-22 borrokatu baten ondoren. Mallabitarrak ere ibili dira txapelketa honetan: Aner Gomez, Luken Pradera, Iñigo Pradera, Gorka Arellano, Mikel Solozabal, Endika Abaskal, Rafa Rubias eta Alfredo Pradera.

HAURRESKOLAN IZENA EMATEKO, 15 EGUNEKO EPEA

Mallabiko Intxaurti Haurreskolako izen emotepea zabalduko da maiatzaren 3tik aurrera. 15 egun izango dira 2009 eta 2010 urteetan jaiotako zuen umeen izena bertan emateko, maiatzaren 14ra arte. 2009an jaiotako umeentzat 6 leku daude eta 2010. urtean jaio direnentzat 8 plaza. Nahi izanez gero, Haurreskolan bertan duzue informazio gehiago.

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Quetzal
Arropa, bitxiak,
opariak... zer ez!

Goienkale 9 · ERMUA
943170065

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaina
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

55 apartamentu egingo dira Abeletxen gazteentzat

Ermuko Udalak 45 metro karratuko hainbat apartamentu eraikiko ditu Abeletxe eta Lomiño artean. Alokairuan banatuko dira eta 240 eta 300 euro arteko errenta izango dute. Obrak irailean edo urrian hastea espero du Udalak.

Europako beste herrialde batzuetan ohikoa den moduan, alokairuari bultzada eman nahi dio Ermuko Udalak. Horretarako, 45 metro karratu inguruko 55 apartamentu eraikiko ditu Abeletxen. Horretaz gain, hirugarren adineko egoitzaren ondoan, 8 etxebizitza libre (horietatik bi lurren jabeentzat) eta babes ofizialeko 18 etxebizitza (alokairuan baita ere) eraikiko dira.

Apartamentuek 20 metro karratuko jan-egongela izango dute, 12 metroko logela, sukaldea eta komuna.

Dagoeneko proiektua idazteko lehiaketa publikoa egin

da eta Mitxelena Arquitectos S.L. izan da irabazlea (5 enpresen proposamenak jaso ostean). Donostiako arkitektura-estudio honek aurkeztutako proposamenean hainbat aldaketa egin dira (balkoiak ipintzea, esaterako). Enpresa honek abuztua baino lehen idatzi beharko du proiektua eta irailaren erdialdera edo urrian obrak martxan egotea aurreikusten du Udalak.

Hirugarren adina

Apartamentu hauek gazteentzat izango dira. Hala ere, Udaleko arduradunak beste herri batzuetan dituzten ereduak aztertzen ari dira. "Donostian, esaterako, hiruga-



ren adineko jendearentzako egiten dituzte apartamentuak -diote Udaleko arduradunek-. Batzuetan, pertsona

hauek orain arteko pisu handiak ez dituztelako behar. Aztertu beharreko aukera dela uste dugu".

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56
Diputazio, 5
ERMUA

MENDIOLA

Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

DOAN Oinetakoak

SEXTO CENTENARIO, 17
(943) 17 13 44

48260 ERMUA Bizkaia

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

MUSIKA ESKOLA

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Amalia Martínez, '¿Quién soy yo?' liburuaren egilea: "Nire bihotzak agindutakoa adierazi nahi nuen"

'¿Quién soy yo?' Amalia Martínezen lehen liburua da. 50 olerki biltzen ditu eta horietako bakoitza, aldi berean, Amaliaren pentsamendu, bizipen eta emozioez osatuta dago. Liburuak sekulako 'gorakada' eman dio bere buruari eta, dagoeneko, bigarren liburua prestatzen ari da.

- **Zenbat denbora eman duzu liburua prestatzen?**

lazko uztailean kaleratu zen eta aurretik urte pare bat egon naiz gauzak idazten eta inprentara eramateko prestatzen. Azken urteetan idatzitako olerkiez gain, nire ikasle garaian idatzitakoak ere badaude. Ez nuen uste nik idazten nuenak mezezi zuenik, lagunek animatu ninduten.

- **Eta esperientziak, merezi izan du?**

Bai, duda barik. Elbarriratsun txiki bat dut eta liburuak "Hau egiteko gai naiz!" esateko balio izan dit. Adorez bete nau.

- **Zeri buruz hitz egiten dute zure olerkiek?**

Alde batetik pertsonen balioari buruz, hain zuzen ere, nahiz eta ingurukoek elbarritu edo ezindu deitu. Bestetik, gizarte honek ezartzen digun ereduetik kanpo egoteari buruz, telebistan agertzen den jendea-

ren itxura bera izan nahi dutenei buruz, bakoitzaren nortasuna bilatzeari buruz...

- **Nola definituko zenituzke zure poemak?**

Olerki existentzialistak dira, oso kritikoak momentu batzuetan. Askok nire poesia oso pesimista dela esaten didate, baikorragoa izan behar dudala. Baina zaila da, azkenean nire barnea husten dut olerkietan eta, egia esan, nire bizitza gogorra izan da. Ez zait irtetzen udaberri eta loreei buruz idaztea.

Bi mila liburu

- **Olerkiak gustuko dituzu?**

Egia esan, ez dut ia olerkirik irakurri, eskolan irakurritakoak bakarrik: Machado, Góngora, Quevedo... eta aitak txikitzen errezitatukoak. Orain, Sabinaren olerkiak irakurtzen ari naiz, izugarri gustatzen zaizkit.



- **Eta horietan oinarritu zara idazteko?**

Agian zerikusia dute, oso kritikoak direlako baita ere, baina ez naiz beste egileengan oinarritu. Nire bihotzak agindutakoa bakarrik adierazi nahi nuen.

- **Zenbat ale kaleratu dira eta non eros daitezke?**

150 ale kaleratu dira momentuz eta Ermuko liburutendetan daude salgai.

- **Liburuzalea zara?**

Bai, etxean bi mila liburu baino gehiago ditut, saiakerak ere tartean. Filosofiako

ikasketak hasi nituen eta, amaren gaixotasuna zela eta, bukatu barik laga behar izan nituen. Hala ere, filosofia eta psikologiari buruzko liburuak oso gustuko ditut. Eleberria ere irakurtzen dut, baina gutxiago, gaiaren arabera aukeratzen dut.

- **Liburu gehiago kalera zuzeko asmoa duzu?**

Bai, bigarren liburua prestatzen ari naiz. Horretaz gain, '¿Quién soy yo?' liburuaren beste aurkezpen bat egiteko asmoa dut.

Doleta Vidal



**ERA GUZTIETAKO MUTUA
ETA ASEURUEKIN
KONTZERTATUA**

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONOSIMENDU MEDIKOAK
- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net

EVA GARCIA

- Mendia, pasioa edo obsesioa?

Pasioa zalantzarik gabe, gailur batean nagoenean benetan gozatzen dudalako. Mendiak gauza on asko dituelako, jendea batu egiten du... Beste alde batetik bi urtean behin egiten den 'Hiru haundiak' froga prestatzen ari naiz, eta apur bat obsesionatu egiten naiz horrek.

- 'Hiru haundiak' 100 kilometro dira eta tartean korrika egin behar...

Gorbea- Anboto eta Aizkorri 24 ordu baino gutxiagotan egin behar da. Jaitziera gehienak korrika egin behar dira, bestela oso zaila da garaiz heltzea. Duela bi urte 18 ordu eta 20 minututan egin nuen.

- Nola sortu zitzaizun mendiarekiko zaletasuna?

Nire bikotea den Javi eta biok Urkora igotzen hasi ginen duela urte batzuk eta uda batean hiru milako mendi batzuk egitea erabaki genuen. Gero, neguan gauza bera egitea pentsatu genuen. Hasieran biok bakarrik gindoazen mendira eta gero, Artarra Mendi Taldean izena eman eta asteburuetan irteera asko egiten ditugu Artarraikoekin.

- Egunero zoaz mendira?

Orain froga prestatzen ari naiz eta astegunetan ordu t'erdi hiru ordu bitarte egiten ditugu. Txandaka egiten dut lana, beraz, horren arabera goiz edo arratsaldean joaten naiz. Asteburuetan denbora gehiago ibiltzen gara mendian.

- Zer egiten duzu sasoiari



Eva Garcia Ermuan jaio zen duela 37 urte eta bertan bizi da. Lau anaierreben arteko gazteena. Mendia du pasio handienetakoa eta ekainean izango den mendiko 'Hiru haundiak' froga prestatzen ari da.

egoteko?

Asko eta denetarik jan, entrenatu eta hamabostean behin masaje on bat hartu.

- Eliteko mendizaletasuna...

Edurne Pasaban. Iruditzen zait izugarrikoa dela egiten duena. Jende askok esaten du laguntzen diotela, honekin eta bestearekin doala, baina ego egin behar da tontorreraino.

- Arduragabe asko dago mendian?

Ezin duzu imajinatu ere egin! Zoritxarrez larregi dago, eta mendian gertatzen diren ezbehar asko eta asko horregatik dira. Duela bi urte Mont Blanc- era joan gi-

nenean horrelako asko ikusi genuen eta oso arriskutsua da jende hori mendira goazen besteontzat.

- Izan duzue zuek inoiz sustorik?

Erorikoren bat bai, baina susto handiena Ordesa inguruan izan genuen. Javi kranpoiarekin moztu egin zen eta bera mendian utzita jaitsi behar izan nintzen laguntza eske. Erreskatatu behar izan gintuzten, baina helikopteroarekin gaizki ulertua izan genuen eta ez ninduten ni erreskatatu, kanpin-dendarekin jaitsi behar izan nintzen eta gaueko 11etan bu-

katu zen abentura.

- Mendirako laguna?

Javi.

- Mendira beti eramaten duzu...

Eguzkitako krema.

- Zein izan da igo duzun mendirik bereziarena?

Mont Blanc-a, heldu nintzenez ezin izan nien malakoei eutsi.

- Euskal Herriko mendi bat Anboto.

- Mendia afiziotik izatetik ofizio izatera pasako balitz?

Presio handiegia litzateke eta etengabe larrua jokatzen aritzeak ez ninduke beteko. Arrisku apur bat bai, baina larregi ez.

- Zer gehiago duzu gustuko aisialdian?

Koadrilarekin asteburuetan poteak hartzen ibiltzea, nire ilobekin egotea...

- Bertute bat?

Baikorra izatea.

- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Presak, gauzak korrika egiteak.

- Zerk erlajatzen zaitu?

Mendiak eta korrika egiteak. Mendiaz gain, korrika egitea ere oso gustuko dut.

- Jateko?

Pasta.

- Zerk pozten zaitu?

Nire buruarekin gustura egoteak.

- Nor gonbidatuko zenuke afaltzera?

Edurne Pasaban.

- Ametsik?

Trekking bat Himalayan.

Alazne Aiestaran

Yoga eskola

Sanatana Dharma

* Arnasketa.
* Ariketa fisiko egokiak...

San Roke 24, behea
Informazioa: 943748593 edo 685722131 (Idoia)

TELEFLOR INTERNATIONAL

Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKILORE

Errotabarri eskubaloi taldeko Kadeteak Espainiako txapelketan

Errotabarri eskubaloi taldeak maiatzaren 14 eta 16a bitartean burutuko den Espainiako txapelketan jokatu du. Apirilaren 16tik 18ra kadete mailako Euskadiko eskubaloi txapelketako fase finala jokatu zen Ermuan. Errotabarri taldekoek Usurbil, Basauri eta Zarautzen kontra jokatu behar izan zuten.

Ermuko Errotabarri eskubaloi taldeko kadeteek 3. postua lortu zuten apirilaren erdialdean Ermuan jokatu zen Euskadiko txapelketan. Fase final honetara heltzeko beste bi fase jokatu zituzten ermuarrek aurretik, 1. fasea eta 2. fasea, eta hauetan lehen postua eskuratu zuten. "Egia esan, aurreko bi faseetako emaitzak ikusita, irabazteko aukerak genituela uste genuen", dio Asier Duranek, taldeko entrenatzaileak.

Lehen bi partiduak (Basauri eta Zarautzen kontra) galdu egin zituen Errotabarri taldeak. "Ez genuen guk da-

kigun moduan jokatu. Guk oso bizkor jokatzeko dugu, eta ez genuen asmatu finala behar bezala jokatzeko. Usurbilen kontra, domekan, lasaiago jokatu genuen eta 29-12 irabazi genien", azaltzen du Duranek.

Hala ere Zarautzekin (1. postua) eta Usurbilekin (2. postua) batera jokatu duten ermuarrek Espainiako txapelketa. Basauri, berriz, txapelketa honetatik kanpo geratu da. Orain bezala, maiatzaren 14a eta 16a bitartean 3 partidu jokatu dituzte (ez dakite oraindik aurkariak zeintzuk izango diren) eta lehen postua lortzen due-



nak, Espainiako fase finala jokatu du. Iaz ere, Espainiako txapelketa jokatu zuen taldeak Madrilan, baina 3. geratu ziren eta ez zuten fase finala jokatu. Hala ere, Asierrek dionez, "fase hau disfrutatzen da, eta irabazteko badugu hobeto".

Ermuan jokatu

Partidu horiek Ermuan jokatzeko eskatu du Errotabarri, Euskadiko txapelketan sortutako giroa ikusita: "Kiroldetia bete egin zen partidu guztietan eta, urduritasunean eragina izan ahal

bazuen ere, giroa itzela izan zen, oso aberasgarria. Gainera, ume pilo bat etorri zen eta hori guretzat garrantzitsua da, eurek direlako etorkizuneko eskubaloari heldu beharko diotenak", dio Duranek.

Txapelketa honekin batera, bi 'formakuntza klinik' egin ziren Lobianon zapatu goizean. Horietan Espainiako kadeteen mutilen eta nesken hautatzaileek hitzaldiak eskaini zituzten. Hitzaldi horietan 30 lagun inguru bildu ziren eta oso interesgarria izan zen euren esanetan.

Santiago Plaza 3, behea · ERMUA
943 10 82 42

"Adituak gara ondo elikatzen irakasten"

AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomatu

Komentukua 1, behea
943 17 63 72

DULCE BEBÉ PEQUE'S

0 eta 4 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

Zubiaurre 30 · ERMUA
943 170 005

MIOPIA EBAKUNTZAK
INTRALASE® FEMTOSEGUNDO LASERRAREKIN
FINANTZIAKETA EZIN HOBEA

Plaza Barria, 2 - 2º - EIBAR - Tfnoa.: 943 201 844

Transgenikoak. Elikagaiak???

Apirilaren 17an produktu transgenikoen aurka manifestazioa izan zen Madrilan, eta ez da lehen.

Transgenikoen merkaturia kontrolpean duten multinazionalak dioteenez, produktu hauek balio onuragarriak dituzte, baina europar estatu gehienetan (Espainian izan ezik), laborantza debekatuta dagoenez, zaila da hori sinistea.


Produktu horien ondorioak kezagarriak dira: lurraren kontaminazioa, pestizida gogorragoen erabilera, alergia berrien agerpena, toxiko berriak elikagaietan eta antibiotikoei erresistentzia, besteak beste.

Bestalde, multinazional horiek hazien merkaturia kontrolatzen dute patenteei esker. Hau da, transgenikoak landatzen dituzten nekazariak, euren uztetan hazitako haziak

erabiltzeagatik, multinazional hauei ordaindu behar diete. Hau zentzugabekeria da!

2009. urtean, Espainian, 76.000 hektarea baino gehiagotan arto transgenikoa landatu zuten ('MON 810', hain zuzen). Produktu hau landatzea debekatuta dago Frantzia, Alemanian, Italian eta Polonian, esaterako. Zergatik? Arto transgeniko horrek dauzkan bakterio geneak intsektizida sustantzia bat sortzen duelako. Horri esker, izurriteetatik babesten da, baina horretaz gain, intsektizida hori kontsumitzaileari ere heltzen zaio eta momentuz ez dakigu horrek zein ondorio dituen gure organismoetan.

Eta orain, Europar Komisioak on-tzat eman du 'Amflora' patata transgenikoaren laborantza. Espainiar estatuak oraindik ez du ezer esan, baina europar estatu batzuek ez dute honen laborantza onartuko.



Ana Gómez.
Ingurugiro teknikaria.

Argi dago kontuz ibili behar gara la erosten ditugun produktuekin. Baina erosketetan, nola ezagutu desberdintasuna? Interneten honen inguruko informazio asko aurki dezakegu. Hemen daukazue helbide interesgarri batzuk: www.greenpeace.es (Guía roja y verde de alimentos transgénicos) eta noquierotransgenicos.wordpress.com

**Erosketetan, nola
ezagutu desberdintasuna?**

www.joyeriasenen.com / joyeriasenen@gmail.com

Pub Dakota

Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

Ardo banatzailea:

| | |
|--------------|-----------------|
| Riedel | Hugel&Fills |
| Avgvstvs | Anima Negra |
| Clos Mogador | Irache |
| Yllera | Cillar de Silos |
| Cantosán | Vriego |
| Luis Cañas | Laurona |

DISTRIBUCIONES ARRAL
TELEFONOA: 943 17 60 75

SALEROSKETAK

Peugeot 307 HDI 2.0 Speed Up salgai. 136CV, 17"ko llantak, larruzko jarlekuak, leiho tindatuak, ESP, ABS, lainoaren kontrako argiak, aleroi deportiboa... 5 urte eta 8 hilabete. 106.000 km. 9.900€. © 675942283



Maiatzak 22
Zorionak Iratxe!! Ondo pasa zure egunean eta muxu asko etxekoan partez!



Apirilak 15
Zorionak Aritz zure 5. urtebetetzean. Musu handi bat aitona, amona eta osaba Oscarren partez. Ondo pasa!!



Martxoak 20 eta apirilak 24
Zorionak Maikel eta Asier, oso ondo pasatzea espero dugu. Aita, ama, Maribel eta Oihaneren partez.



Maiatzak 21
Zorionak eta ondo pasa zure eguna. Aita, ama eta Mikelen partez.



Maiatzak 7 eta 15
Zorionak Iazore eta Edu amatxoren partez. Muxu handi bana eta ondo-ondo pasa.



Maiatzak 8
Zorionak Alex! Hain jator izaten jarrai dezazula. Musu handi bat etxeko guztien partez.



Apirilak 7 eta maiatzak 5
Zorionak June eta Bingen zuen urtebetetzean, familia osoaren partez.




Apirilak 26
Zorionak laztana, familia guztiaren partez zure 1. urtebetetzean.



Apirilak 27
Zorionak Maitetxu. Jada 6 urte!!! Musu erraldoi bat Ainhoa, Ama eta Aitaren partez.



Maiatzak 20
Zorionak zure emazte eta semeen partez. Ondo pasa zure urtebetetze egunean!



Apirilak 28
Zorionak Markel zure 3. urtebetetzean eta musu handi bat Irati, Julene eta Ibaireren partez!!



Maiatzak 16
Zorionak Olatz Unamuno! Ermuko eta Artiako familia guztiaren partez.



Maiatzak 2
Zorionak Ttino, formal ospatu zeure 28. urtebetetzea. Amama eta etxekoak.



Maiatzak 20
Zorionak Javi zure emazte eta alaben partez. Aupa marraskilo!

Hurrengo alerako azken eguna:
MAIATZAK 17
Elexosteko obrak direla eta, gure behin-behineko helbidea hauxe da: Errebalburu 1, behea. !!

★
BACKSTAGE
6 - 16 URTEKOENTZAKO ARROPA!
Zubiaurre 30 · Ermua
943 174 576

OSASUNA ETA EDERTASUNA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
Marfil
FISIOTERAPIA
943 17 28 09
Goienkale, 12 - behea

drogeteniturri

943 17 93 50
Erdikokale 2, 1 - Elexoste
www.euskalbirusa.org

LONDON
Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tif: 943173312

SAGARDUI
bolsos
Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

Argazki honetan agertzen diren danak Pradera abizena dute eta lurretan aterarata dago. Bertan agertzen dira Iñigo, Pako, Ismael, Julian Albino eta Jose Alberto.

* Argazki hau zein urtetan aterata dago?

Horren inguruko informazioa baduzu, bidali drogeten@gmail.com helbidera. Horrela argazkiaren datu gehiago izango ditugu. Eskerrik asko!




MALLABIA



**ERMUA
1958**

Santuko eta Pedratxaneko lehengosu-lehengosinak, Lomiñoko jauregi parean: Irune, Lore eta Josune Mugerza Idigorasen artean Jon, Yoli eta Miren Bego Idigoras Mugerza lehengosutxoak. Orduan ere modak egoten ziren, neskatoen oinetakoei erreparatzea besterik ez dago.



IKASTOLA
38 urte Ermua euskalduntzen



TXINDURRI
TALDEA
Tokian tokiko



Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKAINITZA BEREZIA
OSTIRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

Azken hilabeteetan sekzio berri batzuk eta atal aldaketak egin ditugu Drogeteniturrin. Kaleko inkestaren eta iritziaren atala lotuta joan dira azken 8 urteetan aldizkarian eta hemendik aurrera bata bestearengandik banatuko dugu, aldizkaria poliki-poliki berritze aldera. Zein atal aldatu, kendu edo gehituko zenuke aldizkarian?

Niri dagoen bezala gustatzen zait. Orokorrean atalak askotarikoak eta interesgarriak iruditzen zaizkit, esaterako boteprontoa, iritzia... Elkarrizketak eta Mallabiko kontuak ere ondo daude. Agian ondo legoke kanpoan bizi diren ermuarren bizipenak biltzen dituen atal bat.



Iñigo Erauskin. 42 urte. Langilea



Edurne Egialde. 31 urte. Langilea

Faltan botatzen dut jende gehiagoren parte-hartzea, baina pentsatzen dut zuentzat jende berria bilatzea ez dela erraza izango. Bestela, agendari bizitasun apur bat emango nioke, diseinuari beste buelta bat. Orokorrean gustatzen zait aldizkaria, boteprontoa esaterako oso gustuko dut.



Amaia Ardanza. 59 urte. Langabetua


Jende gehiagoren parte-hartzea egotea gustatuko litzaidake, baina ez da erraza izango. Diru gehiagorekin produktu osatuago eta kalitate handiagokoa izateko aukera egongo litzateke, baina hori ere, ez da erraza. Daukazuen bitartekoekin oso produktu txukuna egiten duzuela uste dut.

Niri asko gustatzen zait aldizkaria eta ekartzen dituen berriak eta gaiak. Akaso ondo egongo litzateke herritarren kezak bideratzeko atal bat jartzea.



Begoña Laka. 71 urte. Jubilatua

Horrela bat-batean ez zait burura etortzen aldaketarik; lasai hartu eta hobeto pentsatu beharko nuke. Hala ere, uste dut gai asko eta ezberdinei egiten zaiela lekua eta gustuko dut. Agian kolorea aldizkari osoan sartzea ona litzateke, baina horrek diru inbertsioa eskatuko luke.



Santi Totorika. 59 urte. Langilea



Iñaki Goenaga. 37 urte. Langilea

Irakurtzen dut aldizkaria eta gustuko dut. Niri pertsonalki mendiarekin zerikusia duten gaiak gustatzen zaizkit eta batzuetan agertzen dira, baina ez dago atal finkorik. Ermuarrok gure kezak adierazteko sekzio bat jarriko nuke, beteko litzatekeela pentsatzen dut.

Testua: Alazne Aiestaran

Euskara eta euskaltegia egin biak zureak



Teresa Murga, 2. solairua
Tel. 943 17 09 25



optika itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51



HORTZklinika
nerea iñiguez

San Ignazio, 4 ERMUA

UMEENTZAKO ZINEA

- **Hilak 2:**
'Donde viven los monstruos'
- **Hilak 9:**
'La montaña embrujada'
- **Hilak 16:**
'Igelak eta zapoak'
- **Hilak 23:**
'Alvin y las ardillas 2'
- **Hilak 30:**
'Dos canguros muy maduros'
17.00etan.
Lobiano Kultur Gunean.
Sarrera dohainik.

ZINE-KLUBA

- **Hilak 6:**
'Malditos bastardos'.
Zuz: Quentin Tarantino.
- **Hilak 13:**
'Los abrazos rotos'.
Zuz: Pedro Almodóvar.
- **Hilak 20:**
'Anticristo'.
Zuz: Lars Von Trier.
- **Hilak 27:**
'La cinta blanca'.
Zuz: Michael Haneke.
19.00 eta 21.30ean.
Lobiano Kultur Gunean.
Sarrera dohainik.

MUSIKA

- **Hilak 7:**
Kalejira: Irulitxa txaranga. 19.00etan.
Orbe Kardenalaren plazatik.
- **Hilak 7:**
Folk Kontzertua:
Nemon eta Nahasiak.
23.00etan.
San Isidro kalean.
- **Hilak 22:**
Vértigo Rock: Muro, Erasol, Insohmnio, Storbais, Arale eta SIN.
17.00etatik. Orbe Kardenalaren plazan eta ingurutako kaleetan.
- **Hilak 29:**
Ermuan Kantuan.
12.30ean. Orbe Kardenalaren plazatik.
- **Hilak 29:**
Musika bandaren kontzertua:
Valdepeñaseko Agrupación Musical 'Maestro Ibáñez'.
19.30ean.
Orbe Kardenalaren plazan.

ANTZERKIA

- **Hilak 14:**
Antzerki musikala: 'Off-On'. Yolanda Arrieta eta Juanxo Zeberio. 22.15ean.
Lobiano Kultur Gunean.
- **Hilak 28:**
'Unplugged: una comedia desenchufada'
Iñaki Urrutia. 22.15ean.
Lobiano Kultur Gunean.

ERAKUSKETA

- **Hilaren 3tik 16ra:**
Eskulturak: Arturo Andrade.
- **Hilaren 17tik 30era:**
Margoak: Ángel Uranga.
Lanegunetan
18.00etatik
20.00etara.
Asteburuetan
12.00etatik
14.00etara eta
18.00etatik
20.00etara. Lobiano Kultur Gunean.
- **Hilaren 1etik 15era:**
Kuba: elkartasunaren uhartea. Udal Liburutegiko sarreran.

UMEENTZAKO EKITALDIK

- **Hilak 8:**
Ipuin-kontaketa, Fernando Pérez Laborda. 17.30ean.
Udal Liburutegian.
- **Hilak 15:**
Haurrentzako tailerrak.
12.30ean. Plazan.
- **Hilak 15:**
Haurrentzako kale antzerkia: 'Argotu', De bote en bote taldea.
Plazan.

BESTELAKOAK

- **Hilaren 3tik 9ra:**
Galiziako letrei buruzko jardunaldiak.
- **Hilaren 13tik 16ra:**
Euskal Liburu eta Disko Azoka. Plazan.
- **Hilak 16:**
Bertso emanaldia: Julio Soto, Sustrai Colina eta Amaia Agirre.
19.30ean. Plazan.
- **Hilaren 17tik 23ra:**
Andaluziako Zentruaren Kultur astea.
- **Hilaren 24tik 30era:**
Gaztela-La Mantxako Kultur astea.

Patxi López

Harategia**M. LAZKANO**

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

OPTICA J. CASADO

Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA**MIGUEL Harategia**

TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

hamburguesería TITANIK

Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

GREMIOEN GIDA

DEKORAZIOA
OBREN KOORDINAZIOA * MARIAN CARRACEDO DEKORATZAILEA

dekorazio estudioa

trastévere
barruko dekorazioa

san pelajo, 26 ermua
tel/faxa. 943 17 90 89
trastevere@wanadoo.es

ITURGINTZA

FONTANERIA
B. DE DIOS

Baimendutako instalatzaileak
iturgintza, gasa, kalefakzioa eta
petrolio produktuak
Komunetako altzariak
eta osagarriak

Gipuzkoa etorb. 48 - behea
Tel/Fax. 943 17 01 09
E-maila: bdedios@euskalnet.net



ELEKTRIZITATEA

BETA

ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ERROTULAZIOA

ROTEK
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA

LUIS VALLE

Bainugelen erakusketak
943 17 15 56

Tailerra
943 17 23 56

Goienkale z/g

PERTSIANAK

TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK.

TAILERRA:
Zearreko buelta 2
943 17 66 34
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60

SERRAILAGINTZA

SEGURTASUNA
GILTZAK
SARRAILAGINTZA

ERA GUZTJETAKO sarraila eta segurtasun kutxen
SALMENTA eta MANTENUA

ERA GUZTJETAKO giltzen KOPIAK.

Segurtasun eta iheserako INSTALAKUNTZAK.
Trabatutako atreak ASKATZEN ditugu.

Urgentzietarako ZERBITZUA:
943 701391
- 8etatik 24etara -

Arragueta 3 (Eibar) - 943 701 391
www.giltzak.com

TELEKOMUNIKAZIOA

Cable Spot

Zure antena TDTRA egokitu.
ETEN ANALOGIKOAK GERTU DAGO!

- Antena kolektiboak
- Atezain automatikoak
- Telefonía mugikorra.
- Zuntz-optikoa.
- Banda zabala.
- Kable telebista...

euskaltel

ERMUA. San Pelayo 4 behea.
943 172314

**Gremioen Gidan
publizitatea jarri
nahi baduzu...**

**deitu
943 17 93 50**

edo 688 63 28 76

Industri-ibilgailuetan hiri amaiera arteko eskaintza baliogarria.



FORD
ATHLETIC CLUB-EKO AUTO OFIZIALA

Zure negozioari bidea egiten.



Orain Ford-en %25eko deskontua egiten dizugu industri-ibilgailu guztietan eta %35erainoko deskontua Ford Transit-en.

Eta hilabete honetan Tom Tom bat eraman ezazu opari.

AUTOMÓVILES KONDIA

EIBAR

Tel.: 943 207 650

Patxi Lejardi
patxi@kondiasa.es

IURRETA-DURANGO

Tel.: 946 815 569

Iñaki Iturriagaachevarria
inaki@kondiasa.es

Feel the difference



0%25

Deskontua